

DIRU SARRERAK



Gure produktua modu ezberdinetan salduko dugu, komunikabide ezberdinetan publikatuko dugu, alde batetik sare sozialetan anuntziatuko dugu, gure enpresaren instagrama sortuko dugu produktuaren argazki batzuk igoko ditugu eta gure web orriaren link-a jarriko dugu interesa duten bezeroak begirada bat botatzeko. Beste alde batetik, eskolan salduko dugu beste mailakoei gure produktua ahoz presentatuko diegu eta nahi izanez gero guregana etorri eta salduko diegu.

Gure enpresa produkzio handia duenez salmenta asko ere eduki behar ditu eta horretarako amazon, wish eta horrelakoetan ere gure produktua saltzea erabaki dugu.

Gure enpresa ezagutzera eramateko propaganda egingo dugu, modu ezberdinetan egingo dugu propaganda hau, sare sozialetan zabalduko dugu gure produktua, kamisetetan ere gure enpresaren logoa jarriko dugu. Noizbehinka promozioak eta eskaintzak egingo ditugu gehiago saldu dezagun.



Ordainketa modu ezberdinak onartuko ditugu, alde batetik eskuz esku saltzen ditugunak esku-diruz kobratuko ditugu eta beste alde batetik internetez edo sareetatik saltzen ditugunak Paypal, Master Card eta beste kreditu txartelekin egin ahal izango dute ordainketa. Merkatuan dauden konpetentzien prezioak ikusi ondoren gure prezioa finkatzea erabaki dugu eta merkatuan daudenak baino

merkeagoak salduko ditugu, guk ditugun kostuak kontuan hartuta soportea bakoitza 9 eurotan saltzea erabaki dugu, gure konpetentziak baino nahiko merkeago.



@sopomovil